



3000

2015eko maiatza - 14. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



ari eta ari, euskara gidari



zenbaki honetan



aurkibidea

- **3**..... Aurkezpena
- **4-7**..... Elkarrizketa:
Lidia Montesinos
- **8-11**..... Bidaia: Vietnam-Camboya
- **12**..... Atzera begira: 1964
- **13-16**..... Goizueta iruditan
- **17**..... Elkarrizketa: Jesus Mari Mitxelena "Bordaxpi"
- **18-21**..... Azaro kulturala
- **22-23**..... Goizuetako eguneroko bizitza, XIX. mendean
- **24**..... Ipuin erotikoa
- **25**..... Ezetz asmatu
- **26**..... Bertso txokoa
- **27**..... Inkesta
- **28**..... Zure txanda

• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea
eta Goizuetako Udalaren
Euskara Zerbitzua

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com



ari eta ari, euskara gidari

iritsi da maiatza, eta iritsi da garai honetan goizuetarrentzat prestatzen dugun oparitxo: XAPO aldizkaria, alegia. XIV.a oraingoan.

Atzoko eta gaurko Goizuetari erakusten saiatzen gara normalean. Etorkizunekoak erakustea gure esku balego, hori ere gustura eginen genuke. Iraganekoarekin eta gaurkoarekin konformatu beharko dugu, nolahi ere, eta halaxe saiatu gara oraingoan ere. Atzera begira jarri gara zenbait artikulutan: "Atzera begira" izenekoan, esate baterako, 1964ko kontuak ekarri ditugu, ordukoa gogoratzeko. Atzerago ere jo dugu, XIX. mendeko Goizuetako udal ordenantzen inguruko artikulutxo bat ere idatzi dugulako. Orduko goizuetarren

bizimodua nolakoa zen antzematen saiatzeko balio digute horrelakoek, eta hortik zertxobait erakusten saiatu gara idatzi horrekin. Bertso txokoa ere izaten da gure aldizkarian, eta horra ere duela urte batzuetako bertsoak ekarri ditugu, Manolo Arozenak 1983an egin-dako batzuk hain zuzen ere.

Gaurko Goizuetari ere begiratu diogu, jakina, baita gaurko goizuetarrei ere. Zuzen-zuzenean goizuetarrek idatzitako bidaia-kroniken bitartez, azaro kulturalakoak kontatuz, inkestetan edo elkarrizketetan esandakoak jasoz, edo, esate baterako, Goizuetara kanpotik etorritako baten ikuspuntua eta argibideak jasoz. Lidia Montesinosi, izan ere, elkarrizketa bat egin diogu, eta ha-

ren begiradak ere gure herria eta geure burua hobeki ezagutzen lagundu diezaguke.

Letrak gauza asko erakusten dizkigu, ez dago esan beharrik, baina irudiek eta argazkiak zer garen eta non bizi garen ere ederki erakusten digute. Argazkiz lagunduta datoz aldizkari honetako erreportajeak eta artikulua, eta, ohi bezala, herriko argazkiez gozatzeko atala ere egin dugu. Ander Olai-zolak utzi dizkigu argazkiak oraingoan eta zinez dira ederrak eta bikainak.

Goza ezazu aldizkariarekin, bada, irakurle horrek, eta gogoan izan: irakurle izatetik aldizkariako laguntzaile izatera pasa nahi baduzu, atek irekita daukazazu.



Lidia Montesinos

"Uste dut Goizuetan bizitza soziala oso aberatsa dela eta oso bizirik dagoela"

Ézaguna da Lidia Montesinos Goizuetan. Izan ere, urtebeteko egonaldia egin zuen Goizuetan, eta egonaldi horretan goizuetarrekin harreman estua izan zuen. Ikerketa bat egitera etorri zen gurera, eta ikerketa hori egiteko jende askorekin hitz egin eta harremana izan zuen. Emankorra izan zen oso egonaldia, eta ikertu eta ikasi zuen hori bere tesina osatzeko erabili zuen. Goizuetan ere izan da bere ondorioak jendarean azaltzen, eta XAPOn ere elkarrizketa egitea erabaki dugu, badu-eta zer kontatua.

• **Goizuetara ikerketa bat egitera etorri zinen 2007. eta 2008. urteetan. Guztira urtebete egin zenuen bertan, herriko bizitzan erabat sartuta. Zein izan zen zure ikerketaren gaia, eta zein izan zen gai hori hautatzeko arrazoia?**

Urtebete egin nuen Goizuetan, 2007ko irailetik 2008ko otsailera eta 2009ko martxotik uztaileira. Hasieran ez neukan erabat zehaztua ikerketarako gaia zein izanen zen, baina banituen herri euskaldun bat hautatzeko zenbait arrazoi: euskararen erabilera eta errealitatea; gatazka politikoaren bizipenak, bertakoak eta pertsonalak; eta herritako bizimoduan gertatzen ari ziren aldaketak. Nire ideia herria eta bertako

jendea ezagutzen hasia zen, baita herriko dinamikak ere, eta ondoren bertako bizitza sozialean ikertzeko gai interesgarrienak zein izan zitezkeen ikusi. Begirada irekia ekarri nuen, bertan agertu zitekeena ikusteko asmoz, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan gai bat agertu zen, nahiz eta hasiera batean ez nuen horrelakorik gogoan: ondasun komunalen gaia, hain zuzen ere, jabetzaren inguruko harremanak eta iralekuen inguruko gatazka.

• **Gai hori bera, akaso, beste tokiren batean ere ikertu zenezakeen. Goizuetara aukeratu zenuen, ordea, zergatik?**

Gaia Goizuetara etorri ondoren aukeratu nuen, jabetzaren inguruko informazioa eta dokumentazioa jaso nuelako: Jesus Etxegiak eta Jose Jabier Etxeberriak emandakoa, Vicente Hernandorenak eta Patziku Perurenak emandakoa...

• **Zer da hona etorri baino lehen Goizuetari buruz zenekiena?**

Euskal Herrira ikertzera etortzeko arrazoietakoa bat lurralde hau ezagutzeko gogoia izan zen. Hizkuntza pro-



pioa zuten Estatuko lurraldeetatik Katalunia eta Galizia ezagutzen nituen, eta horregatik aukeratu nuen Euskal Herria. Goizuetaren inolako berririk ez neukan Txemi Apaolaza antropologo hernaniarrak aukera hori aipatu zidan arte (herri euskalduna, landa-giroko bizimodua, 1.000 biztanle baino gutxiago...). Interneten begiratzen hasi eta interesgarria iruditu zitzaidan: Nafarroan kokatutako herri euskaldun bat, itxuraz nahikoa isolatua baina aldi berean Donostiatik eta Iruñetik nahikoa hurbil, inguru ederra eta basotsua, (kontuan izanda Elxetik natorrela, Alacanteko basamortuko oasia), eta horretaz gain herria gatazka armatuarekin lotzen zuten berriak ere agertzen ziren, zehazki 1980an herrian ETAk egin zuen ekin-tza.

Ondoren, hizkuntzaren gaia interesatzen zitzaidala jakin zuenean, Txemi aipatu zidan Goizuetako hizkeraren berezitasuna, bertako azentua eta bertako euskararen fonetikaren berezitasuna, oso euskara “garbia” omen zela... Eta datu gutxi horiekin, zenbait argazkirekin eta 2007ko udaberriko egun oso euritsu batean Goizuetara egindako bisita labur batekin, erabaki nuen Goizuetan eginen nuela doktoregorako nire ikerketa.

- **2007an etorri zinen lehendabiziko aldiz, herriko festetan, eta ondoren udazken-neguan egin zenuen egonaldia, sei hilabetez, Goizuetan eta goizuetarrekin. Nola eta zertan aldatu zen herriaz zenuen irudia?**

Jakina, herriaz nuen irudia ikaragarri aldatu zen. Nire etorrera ia-ia gertakari bat zen: jendeak begiratu egiten ninduen, zertara etorri nintzen galdezen zidaten, “berria den norbait” nintzen eta ezin nintzen oharkabea pasa. Ondoren, nire etorreraren berri zabaldu zenean eta eguneroko bizitzan integratzen hasi nintzenean, herri txiki bateko bizitza zer zen probatzen hasi nintzen; ordura arte hiri handietan bizitakoa nintzenez (Elx, Valentzia eta Bartzelona), bertako harreman sareak



Goizueta.



Iratz eta belar metak.

eta dinamikak hasieran ulertezinak ziren.

Hala hasi nintzen Goizueta eta bere jendea ezagutzen, bertako paisaia, historia eta toki-izenak, eta pixkanaka herria toki ezaguna bihurtzen hasi zi-

tzaidan, harreman sare horren zati bihurtzen hasi nintzen, eta horrek egonaldi atsegina izaten lagundu zidan. Jendearen hurbiltasuna, babesa eta elkartasuna sentitu nituen. Zinez eskertzen dut hori guztia.



Amabirjinak. Gazte eguna.

- **Hemengo errealitatea xehe ezagutu eta deskribatu duzu. Oso bestelakoa al da beste inguru batzuekin alderatuta? Zeren hurbil dago, edo zer gelditzen zaio urrun?**

Gauza batzuetan ez da penintsulako edo Europako landa-giroko beste herri txiki batzuetatik oso ezberdina, eta haiekin alderatu daiteke. Beste herri batzuetan ere ikus daiteke harremanen hurbiltasuna, ospakizunen egutegia, paisaiarekin eta inguruarekin dagoen lotura, eta baita elkarrekikotasun balio eta praktika batzuk ere. Baina Goizuetak ere baditu berezitasun batzuk. Euskara, esaterako, bertako nortasunaren ikur gisa; edo herriaren historia partikularra, bere baliabide naturalen inguruan eraikia: egurra, zura, burdina, ura; eta, beraz, burdinaren industria, meategiak, basogintza eta ustiapen hidraulikoak... Deigarria egin zitzaidan historian, iraganean eta ohituretan jartzen duzuen arreta. Beste herri batzuetan ere gertatzen da, baina Goizuetan bereziki nabarmena da, agian Nafarroako Erresumako zati izateaz gainera — bere historia eta tradizio propioarekin — Euskal Herriko zati ere badelako, politikoki eta historikoki bere burua aldarrikatzen duen lurralde bat hain zuzen ere.

"Jendearen hurbiltasuna, babesa eta elkartasuna sentitu nituen. Zinez eskertzen dut hori guztia"

Beste berezitasun bat ondasun komunalak eta iralekuen gatazka dira. Komunalak beste toki askotan ere badaude, baina ez dira toki guztietan mantendu eta Goizuetan nahiz Nafarroako mendialde osoan, gainera, oso garapen berezia izan du.

Eta beste berezitasun bat aipatuko nuke, nire iruditua bada ere: uste dut Goizuetan bizitza soziala oso aberatsa dela eta oso bizirik dagoela, oso inplikaturik zaudetela herriari bizirik eusteko ahaleginean, eta hori nabaritu egingen da, esate baterako jende gazteak bertan gelditzeko daukan nahian, edo deusen truke antolatzen dituzuen ekintza edo jarduera mordoan.


- **Hona etorri baino lehen euskara ikastea erabaki zenuen, eta hizkuntza eskolan aritu zinen. Hemen zizela ere euskara eskolak jaso ze-**

nituen. Nolako izan da euskara ikasteko ahalegina? Zer eman dizu ikasketa horrek?

Goizuetara etorri baino lehen Bartzelonako hizkuntza eskolan egin nuen lehendabiziko mailako ikastaroa, eta herrira gutxieneko ezagutza batekin iritsi nintzen. Euskara ikastea lehentasunezkoa zen ikerketan, hizkuntzaren gaia interesatzen zitzaidalako, eta horrexegatik aukeratu nuen herri euskaldun bat. Banekien, gainera, euskara ikasteak herrian hobeki integratzen lagunduko zidala, jendearekin hitz egingen, kulturaren inguruko interesa erakusten... Nolanahi ere, ez nuen inoiz usteko erabaki hori hain garrantzitsua izanen zenik, herriko jendeak nire ahalegina hainbeste eskertuko zuenik, eta nire ikaskuntza prozesuan hainbeste inplikaturik zirenik. Goizuetar bakoitza euskara irakasle bihurtu zen eta asko dira bide horretan lagundu nindutenak, oso eskertuta nago. Hala, oinarrizko maila batean bazen ere, beti euskaraz komunikatzen saiatu nintzen eta jendeari, ahal zen neurrian, nirekin beti euskaraz egiteko eskatu nion. IKA euskaltegiak herrian ematen zituen eskoletan eman nuen izena, eta horrek gramatikako eta hiztegiko baliabide batzuk eman zizkidan aurrera egin ahal izateko.

Askok gozatu dut niretzat erabat arrotza eta ezezaguna zen hizkuntza bat ikasten eta, hain zuzen ere, hizkuntza-murgiltze horren ondoren asko kosta zait eskoletara itzultzea eta nire aldetik ikasten jarraitzea... Uste dut Goizuetara itzuli beharra daukadala ikasten jarraitzeko!

Ikerketarako ere oso garrantzitsua izan zen euskaraz irakurri eta hitz egin ahal izatea, horri esker jendearengana eta idatzizko agiriarekin errazago jo zakeelako. Gainera, hizkuntzaz jabetu ahala, Goizuetako kulturari eta bizi-moduari buruzko gauzak ikasten joan nintzen, bertako izateko moduari buruzkoak, baita bertako kulturaren elementuen berri ematen zuten hitzak ikasten ere, *ondazilegi* edo *iralekua* esate baterako.



Espidealdeko irudi bat.



Goizuetako sarrerako errotiluak.

- **Euskara da Goizuetako bertako eta ohiko hizkuntza, eta zure egonaldian eta ondoren idatzi duzun tesinan, esate baterako, presentzia eta garrantzi oso handia du. Zer ondorio atera duzu ikusi duzun errealitate horretatik?**

Hiru alderdi nabarmenduko nituzke: alde batetik, bertako euskararen eta euskara batuaren arteko kontrastea. Interesgarria da, alde horretatik, belaunaldiz belaunaldi hitz egiteko modua nola aldatzen ari den (Oihana Lujanbio aspaldi ari da gai hori ikeritzen), eta nola zaharrenek hobeki gordetzen duten bertako aldaera hori. Bestetik, jendearen bizitzan euskarak daukan garrantzi sinbolikoa eta identitarioa ere nabarmendu nuen tesinan. Komunikazioaz gainera, euskarak garrantzi sinbolikoa dauka. Nabarmendu dudan hirugarren alderdia euskararen defentsarako borroka da.

- **Kanpotik ikusita, eman lezake Goizueta, mendi artean eta bereiz samar egonda, herri itxia eta zaila behar lukeela izan. Ez da hori, ordea, goizuetarrak ezagutu dituen jende askok ikusi duena, alderantzizkoa baizik. Zein da zure ustea?**

- **Zer esanen zenuke goizuetarrez eta egin zizuten harreraz?**

Esperientziak erakutsi dit goizuetarrak irekiak eta abegitsuak direla; herri txikia da eta denek ezagutzen dute elkar, eta horregatik hain zuzen ere kanpotik datorrenarekiko jarrera irekia dago, hura ezagutzeko curiositatea, atsegin izateko gogoia... Nire ustez, pixka bat saiaturaz gero, herrian ongi integratu daiteke eta bizitzeko toki atsegina eta interesgarria da.

- **Pertsonen eta herritarren arteko harremanak behatu eta aztertu ahal izan dituzu. Oso bestelakoak dira Goizuetan ikusi dituzunak eta zure ohiko bizitokietan ezagutzen zenituenak?**

Tira, garbi dago Goizueta bezalako toki batean, Bartzelona bezalako hiri baten aldean, jendearen arteko harremana oso ezberdina dela, jende guztiak elkar ezagutzen baitu. Are gehiago, Goizuetar gehienek senideak daukazue bertan, familia zarete, eta horrek harreman estuagoak sortzen ditu eta elkar ongi ezagutzea dakar. Gainerako bizitzaz asko dakizue eta gainerako egunerokoan parte hartzen duzue. Harreman etengabea dago eta hori alde handia da beste toki batzue-

kiko. Elx edo Donostia bezalako herri handietan edo hiri txikietan ere gerta daiteke, baina, zalantzarik gabe, biztanle gutxiko herrien ezaugarri bat da.

- **Ikerketa egin ondoren ere berriz ikusi zaitugu herrian, 2014ko azaro kulturean hitzaldi bat ematen, esate baterako. Goizuetarekin duzun loturari eusteko asmorik ba al duzu? Nola moldatuko zara?**

Bai, plazera izan zen niretzat tesia herrian aurkeztu ahal izatea eta zuekin horretaz hizketan aritzea. Izan ere, beti pentsatu izan dut nire lanaren hartzaile nagusiak zuek zaretela eta pozik lagunduko nuke landu ditudan gaien inguruan etorkizunean sor litezkeen jardueretan edo eztabaidetan. Asko interesatzen zait tesian landu dudan gaietan sakontzea eta baita zati bat argitaratzea ere, beraz, niretzat Goizuetan egindako lana ez da bukatua dagoen prozesu bat. Ikasitakoa partekatze gogoz jarraitzen dut, eta baita herria bisitatzen jarraitzeko gogoz ere; badituzte lagunak bertan eta gustatzen zait hara ibiltzera eta mendiaz gozatzera joatea. Orain Donostian bizi naizenez erraza da noizean behin etortzea eta badakit hala egingen dudala.



VIETNAM-CAMBOYA:

hiru astean hamaika geltoki!

Asia ekialden don herrialdea da Vietnam. Mapan beitu ta ttikia dela maten do Txina o India bezalako herrialden ondoren. Biño herrialdea ongi ezautu nahi bazo, bi aste exkax gelditzen dia. Hala re, bakoitzan oporran ta ekonomin arabera egokittu bar izaten dia biajek ta norberak baloratu bar do zenbat eun pasatu nahi ttun, ze modutara biajatuz ta ze lekuz disfrutatuz. Vietnam behintzat, yoteko aukera euki o billatu ezkeron, merezi dun lekua da.

Vietnam-Camboya. Hiru astetan hamaika geltoki!

1. geltokia: Ho Chi Minh

Hegoaldetik hasita, Ho Chi Minh hiria. Moton masifikazioa ta kaosa. Aspertu gabe, ordutan beira eoteko modukoa da. Erdigunen, Pagodak (budistan erlijioko eraikinak), museok ta hainbat eraikin garrantzitsu ikusi littezke.

Nabarmenduko nittuzken lekuk:

- **Cao Dai tenploa:** Erlijio Budista, Kristautasuna ta Hinduismen arteko nahasketa bat iñez sortu zen erlijio tenploa da.
- **Cuchi-ko tunelak:** Vietnamgo gerran, bertako gerrillarik prepatutako gordeleku ta tranpak ezautzeko aukera maten do. Bason sartu ta lurrazpiko tunelak ezautzez gain, bes-

te hainbat trikimaillu ikasteko aukera re maten do.

- **Ben Thanh merkatua:** Edozer gauza erosteko aukera zo bertan. Jantzi-erantzi, jan-edan, probatu-kendu-aldatu, usaittu, ikusi...

2. geltokia: Muine

Hegoaldetik iparralde-ra, bost ordu gotti autobusen, Muine aurkitzen da. Kostako herrixka. Hondartza lasaiak ta leku aproposa mariskoa modu onen yateko. Goiz pasa politt bat izan litteke: dunatan euna argitzen ikusi, “Gran Cañón” ttikitik paseotxo bat man (ibai ertzetik ta harkaitz gorrixkan artetik barna) ta arrantzalek portura alletzen dianeko, hondartzara hurbildu.

3. geltokia: Hoi An

Alde Zaharra ikusgarria da ta japoniar ikuttu haundia dute bertako eraikinak. Ezaunana Zubi Japoniarra da. Modan, japoniar estiloa duten arropa



Angkor tenplok.

propioa diseinatzen dute ta postu guzitan eskuragarri daude arropa berexi hоек.

4. geltokia: Hue


Vietnamgo inperion hiriburua izandua da. Bertan bizi zian enperadorek. Historia haundiko hiria da: tenplok, ziadadela, murallak, Pagodak... Arkitectura ta historia gustoko ttunantzatz, bixitatu beharreko lekua.



Sapako arropa tipikoa.



Arrantzalen herria.



Cao Dai tenploa.



5. geltokia: Hanoi

Hamaika ordu autobusen in ta gero, turistan iparraldeko hiri nausia. Vietnamgo hiriburua. Erdiguneren kokatzen da Hoan Kiem lakua ta hiriguneko muimentu guzia.

6. geltokia: Sapa

Mendialdea. Hanoitik bost ordura. Vietnamgo etniak bizi dia bertan. Herriko bizimodua ta arropa tradizionala zein dian ikusteko aukera. Argazki ikusgarria da bertako arrozalan terrazana.

7. geltokia: Halong badia

Munduko 7 marabilla naturalatako bat da. Itsason zehar zabalduk dauden 2.000 biño gehio uhartetxo ta harkaitz dia. Hobena itsasotik kruzera bat ittera da: turista gehinak bezala bi eunekoa, o paradisun sentitzeko, lasai ta irilatxo baten ia bakarrik, hiru eunekoa.

8. geltokia: Tam Coc

Hanoitik eunpasa bat itteko, leku atseña. Lurreko Halong badia deitzen dite. Harkaitz ta arrozal artetik, errekan barna arrauna iñez, paisaia zoragarritz gozatzeko aukera.

Iparraldea atzen utziz, bidaiako azken txanpa gelditzen da. Hanoi-en hegazkiña hartu ta Ho Chi Minhera, bertan hartzen baita barkua Camboya pasatzeko.

9. geltokia: Mekong ibaia

Vietnametik Camboya pasatzeko modu erakargarrina barkuz ittea da. Vietnameko ibayik haundina den hontan, uran gañeko merkatua ikusi litteke, hau da, txalupatan fruta ta bestelako hainbeste produktun salmenta lekua.



Pagoda bat.



Tam Coc.

10. geltokia: Phnom Penh (Camboya)

Eraikin ikusgarri asko eotez gain, S-21 espetxea re bertan do. Ikusteko gorra, biño interesgarria. 1975-79 bitarten, Jemer Gorriek 20.000 gizon, emakume ta ume biño gehio torturatutako aztarnak ikusi littezke bertan.

11. geltokia: Angkor tenplok

Siem Riep hiritik 5 km-ra do. Bason erdin kokatzen den hiri historikoa da, tenplo difentez osatua. Izakik intako munduko eraikin erlijioso haundinatakoea da.

Bidaia bukatzeko, Ho Chi Minhera buelta ta itxera.

Hainbeste ta hainbeste kilometron arten, hegazkiñez, barkuz nahiz errepidez, txoko ta altxor asko daudela ikusi litteke. Bai Vietnamen ta bai Camboyan. Biño bai han ta bai hemen. Momentu bakoitzen atsein zun leku hora ezautzera da plazerra; leku bakoitzera bere ta zure momentun alletzera, ta intako ta ikusitako hortaz gozatzera!

Bidaia on!

Itsaso Lujanbio
2014ko urria-azaroa



Angkor tenplon budistak.



Halong badia.



Sapako arrozalak.



1964

Diarrio de Navarrak erreportaje luzea eskaini zion Goizuetari 1964ko urriaren 14ko zenbakian. Maio etxean dago jasota egunkaria eta bertako semea den Luis Lujanbiori esker eskuratu du *Xapo* aldizkariak.

Herriaren orduko egoera aztertzen du sakon bi kazetarik sinatutako kronikak. Gero ikusiko dugun bezala, jende gehiagoren iritzia ere jaso zuten, baina Antonio Apezetxea alkateak eta Celestino Gurbindo Udal idazkariak esandakoak aipatzen zituzten bertan gehienbat.

Hizki handiz idatzitako izenburuak zioenez, dirutza gastatu zuen udalak 100 lanpostu sortuko zituen makina-erreminta fabrika bat herrira erakartzeko, lurrak urbanizatu eta musu-truk eman baitzitzaizkion Julian Egiguren enpresariari. Beste lauzpabost eskaera ere Herriko Etxeko mahai gainean bazeuden, baina ez omen zegoen dirurik baldintza berdinetan erantzuteko.

Herriaren iraupenerako industrializazioari ekitea arrunt garrantzitsutzat jotzen zuten alkateak eta idazkariak. Berriak ziotenaren arabera, industriarekin lotura zuten lanpostu bakarrak zentral hidroelektrikoetakoak eta Ollingo meategikoak ziren. Beste 200 goizuetar basoan ari omen ziren, herrian bertan, Gipuzkoan eta Frantzian batez ere.

Mendiaren ustiapena ere garrantzitsua zen udalarentzat.

1956az geroztik miloi erdi bat intsigni pinu landatu ziren lur publikoetan, eta ordurako, urtean 500.000 pezeta inguru jasotzen zituen Herriko Etxeak basoetatik.

Telebista eta Arranbideko Saihesbidea

Egin berriak ziren eta egitear zeuden hainbat inbertsio ere aipatzen zituzten Apezetxeak eta Gurbindok *Diario de Navarrak* emandako elkarrizketan. Aizabordan telebista-hedagailua instalatzea (160.000 pezeta); argiteria berritzea eta kaleen zola-berritzea (1.500.000) eta abar.



Proiektuei dagokionez, berriz, hirigintza plana, herriaren itxura modernizatzeko zuten 13 etxe eraikitzea eta eskola berriak egitea ziren aipagarrienak. Goizuetari-Hernani errepidea zabaltzeko lanak ere hurrengo urtean hastekoak ziren. Eta harrigarriena ondorengo hau: Diputazioak mahai gainean zeukan "Arranbideko Saihesbidea" izeneko proiektua. Obra horrek, gauzatzen zenean, Aranoko "mendatea" ezabatuko zuen 20 minutuan laburtuz Goizuetatik Donostiarainoko bidean igarotzen zen denbora.

Ollingo meategia eta Urumea

Urte honetan, 1964an, 80 lagun ari ziren lanean Ollingo meategian. Urte batzuk lehenago, berunaren garairik hoberenetan, 200 ari omen ziren. Nazioarteko merkatuan mineral honen prezioa jais-tearekin batera, Ollingo betak ere kasik agortu egin ziren, eta erreportaje hau idatzi zenean fluoroaren espatoa erauzten zen gehienbat bertako meazuloetatik, 600 tona hilean.

Ollindik heldu zen kutsadurak Urumea errekekako amuarrairak desagerrarazi izanak herritar askoren haserrea sortu

zuen eta hori ere jasotzen zuen *Diario de Navarrak*. Dena den, meatze eta amuarrairaren artean aukeratu behar bazen, argi omen zeukaten guztiek lehenengoaren alde egin behar zela.

100 baserri eta 7.500 ardi

Garai haietan Goizuetak zituen 1.500 biztanleetatik ia erdiak baserritarrak ziren. 100 baserritik goiti zeuden beteak.

Aziendak ere garrantzi handia zuen orduan etxeetako ekonomian. Ez da harritzekoa, 300 behi, 7.500 ardi, 200 zerri eta 130 behor baitzeuden erroldatuak kronika hau argitaratu zenean. Honekin lotuz aipatu 150 hektareako bazkalekua egin zuela Udalak azienden ustiapen berrien sorrera bultzatzearren.


Bukatzeko esan, komunalen gaiari irtenbidea eman nahian zebilela Udala... orduan ere.

Goizueta iruditan

Goizuetarren argazkiak ekar-tzen ditugu XAPOko atal honetara, eta oraingoan Ander Olaizolari eskatu dizkiogu. Eginak dauzkan milaka argazki horietatik hauek hautatu ditu gure aldizkarirako, denon gozagarri. Irudi eder askoak, naturaren edertasuna dastatzeko zinez bikainak.



Marxoan, mendietan elurra egon arren Kukupelak.



Haritz bakarreko kaxkoa.



Miru gorriak borrokan.



Arrubioa Artikutzako basoan.





Amilotox motoduna gure basoetako bori ezagunenetakoa dugu.



Negu amaieran bitxiloreak dira lehendabizi agertzen diren loreak.



Uda amaieran gure mendiak azafrazez beteta agertzen dira.



Udaberrian Artikutzako basoa.



iruditan

Azaroan haritz hostoek
lurra gorriz janzten dute.
Manduiko erreka.



Urri amaieran
Porrostako errekan.



Jesus Mari Mitxelena "Bordaxpi"

"Turista bezala Joan nintzen eta 42 urte daramatzat Kanadan"

Bordazpi baserriko Jesus Mari Mitxelena Sagastibeltzak ez zuen berehala pentsatu-ko 1973an Kanadara joan zenean handik 42 urtera bertan jarraitu-ko zuenik. Ordurako han ari ziren lanean Donfermineneko Jexux eta Oxentonio Eskudero. Jexux Mariren bi arrebeekin ezkondu ziren horiek, Dolorex eta Begoñarekin, eta Goizuetan ospatutako ezkontzaren ondoren, bostak joan ziren Kanadara, Jexux Mari gaztea turista moduan.

Ipar Amerikako Estatu handi hartara abiatu zenerako ederki zailduta zegoen Bordazpiko mutila, 3 urte igaroa baitzen Frantzia basoan lanean. Beraz, ez zitzaion batere arrotza edo gogorra iruditu han ikusi zuena. Berehala, motozerrari ekin eta pinuak botatzen hasi zen inon mugarik ikusten ez zaien Kanadako baso ikaragarri haietan. Ondorioz, bertan gelditzea erabaki zuen hiru urterako kontratua sinatuz. 1948an jaioa denez, 25 urte zituen Jexux Marik orduan.

Kontratua bukatu zitzaionerako garbi zeukan goizuetar gazteak bere etorkizuna non eta zein eratarik bideratu behar zuen. Beraz, baso lanetarako makina erosi eta bere kontura hasi zen lanean. Horrelaxe eta langintza horretan aritu da 2013ko abenduan 65 urte bete eta jubilatuta zen arte.

Ontario probintziako Cochrane hirian bizi da Jexux Mari 1976az geroztik bere bikotekide den Denisekin batera. Bost seme-alaben ama zen Denis ordurako eta gaur egun dagoneko birraitona da Bordazpikoa. Joan den urrian Zubi Ondo tabernako terrazan egindako elkarrizketa honetan harro eta pozik azpimarratzen zigun



bere familiarekin duen harreman paregabea. Elkarrekin joaten omen dira urtero oportetara ere, Mexiko edo Kubara esate baterako.

Kanadan 42 urte badaramatza ere, euskara eder eta aberatsean mintzatzen da "Bordaxpi". Han kasik ez omen du gure hizkuntza erabiltzeko aukerarik, baina bizpahiru urtez Goizuetara etorri eta tarteka familiarekin telefono bidez hitz eginez zailtasunik gabe eusten dio euskarari. Frantsesa eta ingelesa erabiltzen omen ditu Ontarion. Internetez ailegatzen zaion ETBk ere laguntzen omen dio horretan, baina hemen gehienbat pilota partidak ikusten omen ditu, batez ere bere lehengusu baten semea den Aimar Olaizolak jokatzen duenean.

Goizuetara bizitzera etortzeko aukeraz galdetu genionean ezezkoa erantzun zigun Jexux Marik. Maiz etorri jarraituko omen du, baina betiko gure artean gelditu gabe. Lehen esan bezala, Kanadan ere familia handia dauka eta hagituz gustura bizi omen da han. Gainera, erretiratu baldin bada ere, aspertzeko denborarik ez du Bordazpikoa. Hiritik oso urruti, basoaren erdian dauden lau etxe zahar erosi eta konpondu ditu arrantzan eta ehizan egin nahi duten estatubatuar aberatsei alokatzeko. Denisen seme bat omen du sozio langintza honetan.

Garagardo batzuk edanez Zubi Ondon edukitako tertulian kontu gehiago esan zizkigun Goizuetako Kanadarrak, baina beste baterako utzi beharko ditugu. Hemendik bizpahiru urte arte agurtu genuen iazko urrian Jexux Mari Mitxelena "Bordaxpi".

Azaro kulturala 2015

2015eko azaro kulturala, ohi bezala, ekitaldiz josita etorri zen. Kantitatez ugari, kalitatez txukuna eta interesgarria oso. Denetik izan genuen, kontu serioak eta sakinak, baita arinak eta dibertigarriak ere. Ondoko lerroetan eta irudietan, ordukoaren kronika duzue.

AZAROAK 1, Ander Olaizolaren argazki eta bideo emanaldia

Ganbara lepo bete zen argazkilari goizueta-rraren emanaldia ikusteko. Urtaroz urtaro sailkatutako emanaldian, bere kamararekin harrapatutako Euskal Herriko txoko ezkutu zoragarrienak erakutsi zizkigun eta bukaran hainbat kuriositate argitu zizkigun.



AZAROAK 7, "Wukro"ri buruzko hitzaldia

"Hernani Wukroekin" GKEak Etiopiako iparraldean dagoen Wukro hirian egiten duen lanaren nondik norakoak azaldu zizkigun Angel Olaran misiolariak.





AZAROAK 8, Umore Ona eguna + "haik garaiek" antzezlan

Umore Onako atal desberdinek herria alaitu zuten, eta arratsaldean Aresoko herritarrek "Haik garaiek" izeneko beren laugarren antzezlan aurkeztu zuten Ganbaran. Parre algara ugari egin genuen aktoreek kontatutako istorioekin.



AZAROAK 14, Lidia Montesinosen tesiaren aurkezpena

Hainbat urtetan zehar herrian burututako tesia aurkeztu zigun Lidiak. Herrian hamaika buruko min sortu dituen iralekuen gaiaren inguruan hitz egin zigun.



AZAROAK 15, Umeen jolasak eta Euskararen Kate Hautsiak liburuaren aurkezpena

Eskolako pilotaplazan ginkana ederra izan zuten umeek. Bitartean Ganbaran, gure euskara teknikaria den Dabid Anautek Euskal Memoriaren enkaraguz idatzitako bere liburuak aurkeztuko zigun.

Liburuak euskarak jasan duen zapalkuntzaren memoria du ardatz, eta besteak beste, hainbat goizuetarren testigantzak bilzen ditu.



AZAROAK 21, Euskal Herriko altxorretan barrena

Arkaitz Astiazaran Lasturtarrak 4.800 km-tan zehar errepideko bizikletaz egindako ibilbidea erakutsi zigun dokumental baten bidez. Goizuetatik pasa zeneko irudiak ikusteko aukerarik izan ez bagenuen ere, gustura asko ikusi eta entzun genituen Arkaitzen irudi eta azalpenak.



AZAROAK 22, sendabelarrak

Hainbat sendabelar ezagutzeko aukera izan genuen Maika Cester irakaslearen eskutik.



AZAROAK 28,
*errimatuz garenera
arrimatuz*

Berriz ere aho zabalik utzi gintuen Oskar Estangak bere kantu eta mezuekin. Ttikienek dantzan aritzeko aukera ere izan zuten!

**AZAROAK 29, artisau, nekazaritza
produktu eta azinda feria**

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, oso jendetsua izan zen aurtengo feri eguna. Goizean eskolako pilota plaza leporaino beteta egon zen, baita Lubinekoa ere, urteroko bazkari herrikoi arrakastatsuan.





Goizuetako eguneroko bizitza, XIX. mendean

Goizuetako udal ordenantzak, 1825ean eta 1897an

Gauza ederra litzateke duela 120 edo 200 urte inguruko Goizuetako irudiak eduki-tzea, eta gure aitona-amonen aitona-amonak nola bizi ziren ikusi ahal izatea. Ez dugu horrelako zortetik izanen, jakina, baina orduko bizimoduaz zerbait ikasteko beste bide batzuk ere badaude. Esate baterako, garai hartan egiten ziren udal ordenantzak. Badi-tugu horietako batzuk, eta euskaraz gainera. Ez da hori oso ohikoa, normalean gisa horretako dokumentuak gaztelaniaz egiten zirelako. Goizuetan, ordea, XIX. mendean euskaraz idatzitako bi ordenantza badiugu, eta horrek balio handia dauka.

Udal ordenantzetan herriko bizimodu arautzeko makina bat arau, ohar eta agindu jasotzen da, eta Goizuetan bizimodu nolakoa zen ulertzen laguntzen digute horiek guztiek.

Aipatu ditugun ordenantzak duela bederatzi urte agertu ziren Goizuetako artxibategian. Testu luze samarrak direnez ezin ditugu hona osorik ekarri baina, testua kontsultatu nahi izanez gero, erraz egin daiteke, Interneten jarrita baitaude. Googlen “Goizuetako udal ordenantzak” idatzita, testua irakurtzeko edo pdf osoa deskargatzeko aukera izanen duzu.

Ordenantza hauek, esan bezala, Goizuetako udal artxibategian agertu ziren 1996. urtean, eta Jose Maria Satrustegi

euskaltzain zenari utzi zitzaizkion haien azterketa egin zezan. Azterketa egin zuen Satrustegik eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 72. zenbakian argitaratu ziren. Hantxe daude testuak oso-osorik, euskaltzainaren iruzkinekin osatuta, “Goizuetako udal ordenantzak” izena duen artikuluan.

Testu osoa ez dugu jarriko, baina ordenantzak jasotzen dutenaren erakusgarri, zenbait artikuluk diotena ekarriko dugu hona.

1825eko udal ordenantzak

Ordenantza hau da bietan laburrena, eta 13 artikuluk ditu guztira. Horietako batzuk aipatuko ditugu, baina bat gutxienez hitzez hitz ekarriko dugu, testuak zuen itxura ikus dezazuen. Hone-laxe dio, esate baterako, lehendabiziko artikulua:

1. - Lenvivico ordenanza: Ygande, eta preceptozco festa gucietan acudi dezatela oficio Divinoetara, eta meza nagusico, vezperetaco, eta Rosarioco demboran eztezala niore ere jocatu ez pelotan, eta ez beste jocotan ez plazan, ez tabernetan, eta ez beste toquitán, eta ezutenac au guardatcen izanen dirala castigatuc prisioaquin, eta multaquin.

1. eta 2. artikuluek agindutakoaren arabera, igandeetan eta jaiegunetan

mezara joan behar zen nahitaez. Meza garaian pilotan edo beste jokoren batean ariz gero, isuna edo kartzelaldia. Bestalde, purgatorioko arimen ezkilaren ondoren denek etxera erretiratu behar zutela agintzen zuen.

6. artikulua sarrietan arbolak ebakitzea debekatzen zuen, baita baime-nik gabe larreei su ematea ere.

8. artikulua ere debekua zekarren: ilunabarreko Ave Maria ezkilaz gero kaleetan ezin zen “hitz mudatuarekin” edo “hitz motelka” ibili; ezta egunez nahiz gauetz hitz zikinak kantatu edo irrintzia bota ere. Araua hausten zutenari 100 azote emanen zitzaizkion edo heritik bi urtez erbesteratuko zuten.

9. eta 12. artikuluek jatekoa zuten helburu. Hain zuzen ere, ogia nola egin behar zen eta nola eta nori saldu behar zitzaion arautzen zuten.

Arau zorrotzak eta zigor gogorrek, ikusten denez, garai hartan goizueta-rrek kontuan hartu beharrekoak.

1897ko udal ordenantzak

Ordenantzaren zatirik handiena kaleko auziak arautzeko erabiltzen da, 87 artikuluetatik bi heren kaleko arazoei buruzko aginduak baitira. Artzain eta nekazari herria zen Goizueta, baina 21 artikuluk besterik ez dira mendiez, animaliez eta herriko mugez ari direnak.

*Goizuetako Villac bere governu oneraco, Jaungoicoaren eta Orregeko
Magestatdearen servituzuraco disponituric gauzquien ordenanzac, agintari
ditzatela Vecino, eta habitante guciai guarda, eta observa ditzatela dirade
1. Lenvicio ordenanza: Ygande, eta preceptorzko festa gucietan acudi
oficio Divinoetara, eta meza nagusico, vesperetaco, eta Rosarioco den
tezala niore ere jocatu ex pelotan, eta ex beste toquitan, eta extutenac au
tcten izanen dirala castigatuac prisioaquin, eta multaquin.
2. Bigarrena: guciac recogitela beren icheetara Purgatorioco
quilla, edo queda io orduco, eta dembora au exquero tabernariac exte
iti nior ere tabernetan ex carta iocoan, eta ex beste bulletan, eta extutena
aten izanen dirala castigatuac multa rigorosoaquin. Ala Tabern
acomas ordua ura exquero, eta admiticten dixutenac.*

Lehendabiziko sei ataletan herriko ostaturek bete behar dituzten baldintzak agertzen dira. Inauteriak dira hurrengo sei artikuluetako gaia. Atalik mamitsuena, nolnahi ere, 20-62. artikuluek osatzen dute Satrustegiren arabera. Biztanleen bilerak debekatzeko, jokoak eta kirolak baldintzatzeko eta etxeberritzea edo harginlanak arautzeko artikuluek dira horiek. Jendeak bilerak egitea edo elkartzea, nonbait, ez zuten batera gustuko orduko agintariak, ez etxeetan eta ez kanpoan edo kalean.

2.- Debekatua ostatu ematea alperriari, desertoreari eta bide gaiztoan dabilenari.

3.- Kafeak, tabernak eta gainerakoak 9etarako itxita urriaren hasieratik martxoaren bukaera arte. 10etarako gainerako hilabeteetan.

7.- Debekatuta zegoen tiroak, suziriak, petardoak... botatzea, agintarien baimenik gabe.

8-9-11.- Inauterietan kaleetan mozorroak "careta edo mascararequin"

ibil zitezkeen, baina kendu egin behar ziren "avemari ezquilla" jo bezain laster. Ezin zen magistratu, apaiz edo militar mozorrorik jantzi, edo bestelako uniforme mozorrorik. Istilurik sortuz gero, agintariak mozorroa kenarazi zezaketen.

14.- Erljio katolikoari inolako falta egitea zigortu egingen zuten.

15.- Trumoi edo ekaitz garaian ezin zen ezkilarik jo, frogatuta omen zegoelako ezkilararen soinuk tximista ekartzan zuela.

25.- Kanpoko pobreek ezin zuten Goizuetan limosnarik eskatu. Herrikoek bai, baina horretarako Udalaren baimena behar zuten.

40.- Borrokan eta harritiraka ibiltzea debekatzen zaie hurrei ("muticoc" aipatzen ditu, zehazki, neskak aipatu gabe), eta guraso edo tutoreak izanen dira erantzuleak.

42.- "Eroak" edo "burutik nastuak dabilzanak" kale edo paraje publikoetan libre uztea debekatzen zaie

haien enkargatuei, haiek ondoan ez badaude.

52-59.- Herrian saldu behar diren edarien eta elikagaien inguruko arauak dira. Egoera onean egon behar dute, indarra, kolorea edo kantitatea handitzeke urarekin edo bestelako substantziekin nahasi gabe, eta gisakoak. Nonbait, nahikoa praktika arrunta izanen zen hala egitea, hain garbi eta espresuki debekatzan baldin bazen.

67-68.- Animaliak gaizki tratatzea ere debekatuta zegoen.

87.- Lege-hausteen ardura norena izanen den zehazteko garaian, animalien kasuan jabeak aipatzen ditu, eta haurren edo seme-alaben kasuan "aitac, tutoreak edo enkargatuak". Ez ditu gurasoak aipatzen, aitak baizik, ezta seme-alabak ere, "semeak, edo pupiloak eta mutillak" baizik.

Satrustegik, artikuluen bukaeran, ordenantzan jaso zuen hiztegi bereziaren berri ematen du, hitz batzuk zerrenda batean bilduta.

Hamar urte inguru izanen genituen gure artean zeozer berezia sortu zela konturatu ginenean. Maisu-maistrek kontrakoa agindu ezean, elkarren inguruan esertzen ginen eskolan, errekreotan elkarrekin jolasten genuen, ia konturatu gabe gure begiradak noiz-nahi gurutzatzen ziren...

Horrela jarraitu zuen harremanak 14 urterekin Goiko Itturin orain konturatu dudana gertatu zen arte: uztaileko arrats eder horietako bat zen. Aipatutako leku xarmagarri horretan elkartu ginen bokadiloak jatera. Dozenaren bat neska-mutiko izanen ginen gutxienez. Sagardoa eta patxaran botila bat tarteko, lotsak ederki boteak genituen eguzkia gorde zenerako. Hamaikak aldera edo, eta Goiko Itturiko ilunpetik ihesi, plazan elkartzeko deialdia egin zuen taldeko batek. Baina M^a Angeles (horrela deituko diot baina ez zen hau beraren izena) eta ni ez ginen mugitu ere lurtean zabalduta geneukan mantelaren gainetik. Ordurako eskutik helduta geunden, eta bakarrik gelditu bezain pronto gure lehenengo musua eman genion elkarri. Honek zeozer ikaragarria askatu zuen gure barrenean, eta elkar biluzi genuen aitaren batean musuek jarraitzen zuten bitartean.

Maitasunaren, adinaren... eta alkoholaren ondorioz erabat deskontrolatu ziren gure instintuak. Zakila lehertzeaz neukan eta beste inolako aurreberoketarik gabe bere gainean jarri nintzen. Hori xe nahi zuen M^a Angelesek ere. Nere tresna eskuarekin hartu eta bere alura eramane zuen, baina ustez ongi gidatu zuen arren, ez genuen inola koitorik lortu. "Misionero" eran bizpahiru saiakera egin ondoren, beste zenbait postura probatu genituen baina ez genuen helbururik lortu azkenean. Istorioaren zati hau bukatzeko esan, bere aurrean eta bere laguntzarekin, idiarena joaz amaitu zela Goiko Itturiko abentura.

Umerez hartu genuen gertatutakoa eta kasik lagunak ordurako plazan ginen gu ere elkarri eskutik helduta. Handik bi egunera eman zidan berria "nere" neskatok, Teruelera zihoan bizitzera bere familiarekin. Aita Guardia zibila zen.

Ondorengo hilabeteetan asko oroitzen nintzen M^a Angelesez, eta Goiko Itturin

gertatukoaz baliatzen nintzen nire barlanetarako. Kartaren batzuk ere idatzi genizkion elkarri. Baina bizitzak markatzen duen bidea jarraituz, ikasketak burutu nituen, ezkondu nintzen, umeak eduki nituen, eta goizuetar asko bezala, Gipuzkoako hiri batera joan nintzen bizitzera.

Egia esan, hilabeteak igarotzen nituen nire jaioterrira agertu gabe, baina kintoren eguna ez nuen sekula huts egiten. Urrutineko atarian elkartzen ginen urtero, eta furgoneta herriaren sarreran utzi eta haraxe abiatu nintzen aurtengoan ere. Hantxe zeuden biribilean 10-12 lagun. Sevillako atarira ailegatu baino lehen agurtu nituen eskua altxatuta eta "Gora nere kintoak" oihukatuz. Baina zein zen ilehori dotore hura? Emakumei musuak, gizonei eskua... azkenetako utzi nuen ezezaguna. "Ze, hainbeste aldatu al naiz?" galdetu zidan gaztelaniaz. La ostia!! M^a Angeles zen. Biok batera luzatu genituen besoak elkar besarkatzeko. "Bai, aldatu zara, baina hobera" pentsatzen nuen bitartean, ederra baitzegoen bere berrogehita piko urterekin.

Trago batzuk hartu ondoren afaltzera joan ginen, eta mahaian eskolako garaietan bezala, elkarren ondoan hartu genuen eserlekua. M^a Angeles Iruñean bizi zen eta estatuko funtzionarioa omen zen lanbidez. Aspaldi samar ezkondua eta bi umerekin. Taldeko "kinta" batek eman omen zion gure ohituraren berri Sanferminetan topo eginda. Gaua luzatu zenean aitortu zidan zerk bultzatu zuen bereziki Goizuetara etortzeko. Hainbes-

te urteren ondoren ni nola nengoen -nolakoa nengoen- ikusteak sortzen omen zion interesa eta ... morboa.

Afaldu eta mahaian lasai egondakoan Bekodendara sartu ginen. Kubalibreak eskuetan hartuta korroan dantzatu genuen, Juanitok Benitoren kanta gozo bat paratu zuen arte. Berehala lotu ginen elkarri. Ordurako alkohol neurria goi samarrean genuen eta Goiko Itturiz oroitzen nintzen. Urrutinen elkartu ginenetik txanda ezin hartuz aritu ginen hizketan, baina itsatsiz geroztik isiltasuna zen nagusi. Lertxundiren kanta bukatzeaz zegoenean hautsi zuen nire dantzakideak isiltasuna. "Aizu, gogoratzen al zara gu biok zeozer egiteke ("pendiente" hitza erabili zuen gaztelaniaz) daukagula 14 urte genuenez geroztik? Aurretik eszizatzen hasita baldin banengoen, hauxe falta nuen!! Barremurritz goxo bat besterik ez nuen erabili erantzuteko. "Goazen beste batera" egin zuen oihu kinto batek. Hori entzun ordurako gorako bidea hartu zuten denek, eta "zuten" esan dut, M^a Angelesek eta nik Infanta aurretik igaroz beherantz joa baikenuen handik 100 metrora aparkatuta neukan furgonetara ailegatu arte. Ikaragarria izan zen handik aurrerakoa!! Ez ginen argitara atera hurrengo eguerdira arte. Ederki aski kitatu genuen hainbeste urte lehenago "pendiente" utzitakoa. Eta gau horretatik lau urte igaro badira ere, oraindik kitatzen jarraitzen dugu, noiz-nahi elkartzen baikara M^a Angeles eta biok gure maitasun kabi bihurtu dugun furgoneta urdinean.

THE END



ezetz asmatu

EZETZ ASMATU

Atal honek dioen bezela, asma-tuko ote duzu, zein toki eta ba-serri diren, edo nor azaltzen den argazkietan?

Errazena norbaiti galdetzea izango zenuke, baina gure proposamena da motxila eta ha-maikatakoa hartu eta mendira ateratzea, eta hemen azaltzen diren toki horiek bilatzea.

Eta nola ez, paseotxoaz eta paisaiez gozatu! Gai izango ote zara?



GORA GOIZUETAR PILOTARIAK

Lehen ere Manolo Aroze-
naren (Sarran, 1949)
bertsoak argitara eman
izan ditugu *Xapo* aldizkarian.
Gaurko hauek Manolo plaze-
tan kantan hasi baino urte
batzuk lehenago idatzitakoak
dira, 1983an hain zuzen.

Gero Espainiako Estatuak
itxiko zuen *EGIN* egunka-
riak irakurleek bidalitako
bertsoak publikatzen zituen
Egunon gehigarrian, eta au-
kera horixe aprobetxatu zuen
Arozenak egun batzuk lehen-
ago Nafarroako Herri Arteko
Pilota txapelketa irabazi zuen
herria eta pilotariak zorion-
tzeko eta goraiatzeko.

- (1) Milla beatzireun laurogei eta
Aurten hirugarrenguan,
Irailaren hamazazpia
Labrit pilota lekuan,
Nafarroako herri arteko
Txapelketan azken mугan,
Eugi eta goizuetarrak
Denok pilota jokuan,
Goizutarrak irabazteko
Gutxi dirade munduan.
- (2) Juantxo ta Iñigo txikien maillan
Dira mutil nabarmenak,
Mutil txikiak baina pilota
Bizkor ibiltzen dutenak,
Hoiien jokarak geienak dira
Luzeak eta zuzenak,
Jenioz behintzat ematen dute
Andaluziko zezenak,
Nahiz batzuk galdu hauek ditugu
Nafarroako onenak.
- (3) Azken eguna baino aurretik
Lanak badira eginak,
Uste ez zuten asko dirade
Hartu dituztenak minak,
Haiiek menpetzen naiz eta egin
Herri denek aleginak,
Goizuetarrek ekarri dituzte
Pozak eta atseginak,
Ez baitirade nunai izaten
Hemen bezain mutil finak.
- (4) Itxortxak eta Xabierrek hortan
Badute etorkizuna,
Kontrarioak gehien gaizki
Hobezu izan laguna,
Hoiere beira jan gabe ere
Pasa litake eguna,
Hointzat berdina da horma latz egon
Edo azpia leuna,
Bikote handia da hamarretatik
Zortzitan irabazi duna
- (5) Txikietatik haundietara
Bat bezain ona bestia
Bidezkoa da denen merituk
Hemen adieraztia,
Herritarrak e hoiei laguntzen
Saiatu gabek ezia,
Aiton da amona neska ta mutil
Berdin zarra ta gaztia,
Laguntzarikan behar badute
Danak han juaten dia.
- (6) Joxe Julian eta Arizti
Hoik dira Salaberria,
Hautetikan seguro dator
Irabazdunen berria,
Bikote honen jokaera da
Gauza ikaragarria
Ezker ta eskuin berdina jotzen de
Pilota edo harria,
Goiko puntaino eraman zuten
Goizuetako herria.
- (7) Lujanbio ta Agustinekin
Pilotarin bukaera,
Onak badira kontrarioak
Halare beti aurrera,
Sake luzea bederatziraino
Gero airezko sarrera,
Herritarrentzat atsegina ta
Kontrariontzat galera,
Toreron modun jenden bizkarren
Beti dijuaz kalera.
- (8) Herri guztia han bildu gera
Denok gorputz bat bezela
Eta uste det pilotariak
Hori merezi zutela,
Lautatik hiru aisa irabazi
Sartu ditegu epela,
Iruditzen zait oraingotikan
Zerbait ikasi dutela
Herritar denek merezi dute
Pilotarien txapela.
- (9) Naiz ta txapelak hor irabazi
Ez zaigu burua nasi,
Harrokerizko bide maltzurak
Ematen baitu itsusi,
Kanpotik honuntz datozenekin
Kolpez lagun gera kasi,
Txarrak badira txalotzeitugu
Onengandik ikasi,
Horregatik atetzen dira
Goizuetarrak nagusi.
- (10) EGUNONetik eman nahi nuen
Goizuetako berria,
Herri batentzat hori delako
Oso gauza pozgarria,
Pilotan eta euskaraz egin
Ai txoko agurgarria,
Zure semeek izan dezaten
Beti zeure egarria,
Gora pilota, gora Goizueta
Ta gora Euskal Herria.

Nondik heldu zio gure herriari Goizueta izena?



XABIER GOIZUETA

Goiko bi zubi (bi zubi printzipal dialakoz).



MAÑOLI LOIARTE

GOI-ZUBI-ETA. Bost bokal ttun herri bakarra gainera.



XEBE APEZETXEA

Goi Zubieta omen zen leno; hitzeitten den bezela gure hizkerakin ola gelditu.



MERTXE UITZI

Nik aittua dut Goiko ur haundingatikan. Ta bestea Goiko Zubingatik.



MOTZA

GOI-ZULOETA.



ALAIN GOIZUETA

GOI ZUBI ETA. GOIKO-ZUBIA-ETA (lekun atzizkia).



ARANTXA PERURENA

Goiko Zubitik heldu da izena nere ustez.



JUAN MARI MAKAZAGA

Goian herria itteko hasi omen zian ta uran problema izain zelakoz behean egin. GOI-ZULUETA ta ordun luzea zelakoz GOIZUETA.



BELEN APEZETXEA

Goiko Zubitik datorrela uste dut.





ZURE TXANDA

Jose Mari Salaberria



Zenbat urterekin hasi zinen pilotan eta noiz arte aritu zinen?

Ume umetatik hasi nitzan. Kanpeonatotan 19 urtekin ta ezkondu ondoren utzi nun, 30 bat urtekin.

Profesionaletan ibili al zinen?

Ez, eskeini ziaten bino, afizionatutan biño gutxio irabaziko nunez ez nitzan pasa.

Biño federatua nitzan. Gipuzkotik ta Nafarroitik eskeini ziaten biño nik lana Gipuzkon itten nunez hokio heldu zizian.

Non jokatzan zenuten? Eta nola joaten zineten leku haietara?

Gipuzkon, Nafarron eta Riojan asko, biño Madridera ta Bartzelonara re jotan giñan. Normalen taxin ibiltzen giñan ta urruti jon behar giñanen pala kortakok, largakok, denak batera jotan giñan.

Madridera jotan giñanen eun guzia biñan pasatzen gunun, ta bertan eun batzuk, astea pasatzen giñun.

Txapelketa garrantzitsuren batean jokatu al zenuen?

65en Kanpeonato de Españan txapelkun atere giñan Bengoetxea, Aranoarra ta biek. Partidua Madrid-Nalda, Alabesan kontra. Ta Gipuzkuko kanpeonaton e hiru aldiz.

Bistan dago pilota munduan aldaketak izan direla, zer nabarmenduko zenuke?

Oango pilotak askoz e biziok dia. Guk ibiltzen ginitunak haundiok zian, goma tükia ta hari asko zuten. Gu takoik gabe ibiltzen giñan, eskutan esparadrupu hutsa izaten giñun. Oango pilotak miña haundioa maten dute eta takok ibili beharrak ttuzte pilotarik. Arropatan e bado aldea. Gu zuriz ibiltzen giñan biño alkandora jazten giñun ta ointakok eskarpiñak. Hoik Pauleneko Margaritan gizonak itten zittun Donostin ta hari hartzen nittin nik.

Partiduk oan 22ra dian bezela, ordun 25ra izaten zian.

Apustu gehio itten zen ordun. Partidu asko Nafarron korredorekin izaten zian.

Desafioko partiduk bazian entradakin izaten zian, festatan ta hola ez.

Bukatzeo, zein da gehien gogoratzen duzun partidua?

Retegi In kontra jokaturako desafio bat. Bi partidu in giñittun, bat Villaban ta bestea Goizutan. Han 24-15 galtzen ai nitzan, biño 25-24 iraozi nun. Ta hemen berriz 25-15 iraozi nun. Ordun Retegi I oandik afizionatua zen, biño ingurukoa izatekin...

Jose Julian Salaberria



Zenbat urterekin hasi zinen pilotan eta noiz arte aritu zinen?

Nere lehenbiziko partidua zuriz jantzita, 7 urtekin jokatatu nun Leitzañ, Petrineko Joxe Marikin, ta 36 urtekin utzi nun.

Profesionaletan izan zinela badakigu, nola izan zen?

Bai, 17 urtekin, oandik jubenila nitzanen, kontratoa firmatu nun ta 18kin hasi nitzan jokatzen, Eskulari enpresakin. 24 urtekin Asegareekin firmatu nun.

Txapelketa garrantzitsuren batean jokatu al zenuen?

Binakako txapelketa jokatu nun mordoskatan, biño finala 23 urtetan, Galartzakin batera, Retegi II-Arretxan kontra.

Euskadiko txapelketa, hau bi urtetan o in zen. Belokikin txapelkun geldittu nitzan

Beti bikote berarekin ez zinen ibiltzen, bai al zenuen bat besteak baino gustukoago?

Belokikin aitzea asko gustatzen zian, pilotari bezala asko jotzen zun eta "hueco" asko irekitzen zittun. Gañera mutil fina zen.

Zure aitak kontatu dizkigu aldaketak bera pilotan ibiltzen zenetik orainera. Hainbestekoa al dago zure garaitik hona?

Ni hasi nitzanetik bukatu nunera re kanbio asko izandu zian. Nabarina pilotak izandu zian.

Ordun ta oan e afizionatutik profesionalatara pasatzen denen asko nabaitzen da hori. Pilotak pilotaria dominatzen do.

Takok berdintsu guk. Batzuk esku guzin patzen ttuzte takok, ordun ta oan e, nik bihartzatan ez nittun patzen, esparadrupu hutsa patzen nun. Hasieran bihartzakin jotzen nun pilota biño lau behatz e hautsi izandu ttut ta lehenbizikok ondoren, eskukin jotzen ikasi nun pilota. Ordun nere golpe naturala galdu in nun.

Arropa hasieran dena txuriz ta Asegareekin nikik eta koloretakok jazten hasi giñan, telebixon kontukin. Gainera kamixtak fibrazkok o termikok zian..

Frontoiak kolorez aldatu zittuzten eta pilotak e bai, telebistan ikusten ez zialako.

Arauk e ordun aldatu o in zian. Atsedendik behartu itten zittuzten eta neurtu, publizitatea sartzeko.

Oango pilotarik prestaketa fisiko haundioa itten dute eta elikadura asko zaindu.

Oroitzen naiz hasiera hartan gure bestuariotan ura ta Cognaka izaten giñittun erateko. Oan ez da bela gotzen, hori.

Lehen Angelusa itten zen eurdiko hamabitan partidua geldittuz, hori re galdu da.

Bukatzeo, zein da gehien gogoratzen duzun partidua?

1996en, abuztuk 9n, Elkorokin jokatu nun Blancako torneoko finala, Unanue-Errastin kontra. Partidua arrunt relajatua eta seuro jokatu nun.